



**MATERIAL ELEKTRIKOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIAREN
AZALA Espedientea: 3251**

Erregulazio bateratua duen kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☒ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Aitor Ezeiza Virumbrales
4.- Kontratazio Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono- zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratuaren xedea material elektrikoaren ordezkoko piezak erostea da, batez ere, transformazio-zentroetarako. 2.- Bete beharreko premiak: Proposatzen da ekipamendu elektrikoaren material ezberdinak erostea biltegian kontsumituta dauden ekipoak eta azken urtean identifikatutako beste batzuk ordezteko. Bilduko den ordezkoko materiala honako kategorietan banatu daiteke: 1. Gelaxkak, erdi-tentsiokoak eta fusibleak. Instalatuta dagoen materialaren ordezkoko pieza espezifikokoak eta beste orokor batzuk. 2. Banaketa-transformadoreak.3. Boluetako larrialdi-ponpaketako abiagailu estatikoen ordezkoko pieza espezifikokoak. 4. Lamiakoko ponpaketarako ordezkoko pieza espezifikokoak. 3.- Sortetan banatzea: ☒ Bai ☐ Ez Sortaren deskribapena eta zenbatekoa: 1. Transformadoreak hornitzea. 2. Gelaxkaz hornitzea. 3. Dagoeneko instalatuta dagoen materialaren ordezkoko piezak hornitzea.
4.- CPV: ▪ 31100000-7 Motorrak, sorgailuak eta transformadore elektrikoak. ▪ 31214520-0 Erdi-tentsioko gelaxkak. ▪ 31680000-6 Material eta osagai elektrikoak.
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐BAI ☒EZ
6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA	
1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HAMABI MILA EURO (592.000 €), BEZ-A KANPO 1. sorta: 297.000,00 € 2. sorta: 95.000,00 € 3. sorta: 200.000,00 €
2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 592.000,00 euro Sortak: ☒ BAI ☐ EZ Sorten kalkulaturako balioa: 1. sorta: 297.000,00 € 2. sorta: 95.000,00 € 3. sorta: 200.000,00 €	
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☐ Oroharreko prezioa ☒ Aleko prezioak	
4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 623.02.169,31. 1. sorta: <u>2026</u> - 150.450 € - <u>2027</u>: 146.550 € 2. sorta: <u>2026</u>,95.000 € 3. sorta: <u>2026</u>,200.000 €	
5.- Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez	
6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ	
7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez. 1 sortarako % 60 ziurtatu ahal izango da, transformadore bakoitzaren fabrikako entseguen emaitza jaso eta gero. 2 eta 3 sortetarako % 60 ziurtatu ahal izango da, materiala jabetzarentzat eskuragarri dagoenean entregatu ahal izateko.	
8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar.	

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.- Iraupena guztira: HOGIETA HAMAR (30) HILABETE
2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ



D.-KONTRATUAREN EPEA

3.- Luzapena

☐BAI ☒EZ

4.- Berme-epea: Bi urte

5.- Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin.

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

- 1. sorta.- Kontratuaren xede diren horniketen izaera bera edo antzekoa duten, eta gehienez ere bukatutako azken bost urteetan egindakoak diren lan edo zerbitzu nagusien zerrenda. (100 kVA baino gehiagoko transformadorea - 100.000, 00 €).
- 2. sorta.- Kontratuaren xede diren horniketen izaera bera edo antzekoa duten, eta gehienez ere bukatutako azken bost urteetan egindakoak diren lan edo zerbitzu nagusien zerrenda. (24 edo 36 kV-ko gelaxka - 30.000,00 €).
- 3. sorta.- Kontratuaren xede diren horniketen izaera bera edo antzekoa duten, eta gehienez ere bukatutako azken bost urteetan egindakoak diren lan edo zerbitzu nagusien zerrenda. (250 kW baino gehiagoko frekuentzia-aldegailua 70.000,00 €).

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio iritzien arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1. SORTA

Lizitatzailleek memoria tekniko bat aurkeztu beharko dute eta, bertan, lizitatzaille bakoitzak erantzunak eman beharko ditu edo informazioa eman beharko du honako alderdien eskaintza argitzeko:

- Memoria teknikoa:
 - Adierazi behar du ea eskainitako pinturak C4 kalitatea gainditzen duen eta zer motatakoa den, arau berean oinarrituta.
 - Adierazi behar du zein den eskatutako eskaintzen gainetik ematen duen berme osagarria.
 - Ekipoaren fabrikatzailea, zein fabrikatan eraikiko diren eta jasotzeko itsas garraioa beharrezkoa den aipatu beharko du.
 - K isuriaren ezaugarriak.
 - 250 kVA-ko transformadoreetarako (30/0,42 kV) entrega-epea edo 315 kVA-ko transformadorerako (30/0,42 kV) entrega-epea.
 - Gainerako transformadoreetarako entrega-epea.
 - Plano batean edo makina berdinak edo antzekoak erakusten dituzten argazkietan adierazi beharko ditu transformadorearen altxatze-puntuak eta tiro eta bultzada horizontaleko puntuak, horien identifikazioa eta kokapena. Garabiarekin edo orga igotzailearekin altxatzeko edo lan egiteko posizioraino eskuz arrastatzeko.
 - Argitu behar du ea transformadoreen probetarako laguntza eskatzen badu, proba horiek bideokonferentzia bidez ikusi ahalko diren ala ez.
 - Eskuragarri dagoen biltegiatze-lekua, lapurreten aurkako alarmarik ote duen, laneko ohiko ordutegietatik kanpo irekitzea posible ote den eta Bilbotik zenbat kilometrora kokatuta dagoen adierazi beharko du.

2. SORTA

Lizitatzailleek memoria tekniko bat aurkeztu beharko dute eta, bertan, lizitatzaille bakoitzak erantzunak eman beharko ditu edo informazioa eman beharko du honako alderdien eskaintza argitzeko:

- Memoria teknikoa:
 - Katigamendu mekanikoen ezaugarriak adierazi beharko ditu, bereziki, neurri-gelaxkarena.
 - Argitu behar du ea gelaxkek tentsioa duen posizio baten lurrerako konexioaren aurkako adierazpen akustikorik ote duten.
 - Gelaxka bakoitzeko tentsio-presentziaren argi-seinaleen ezaugarriak eman behar ditu.
 - Gelaxkaren sarrerako entxufeetan jarriz gero, autobalbulak non dauden eta nola muntatzen diren adierazi beharko du.
 - Erabiltzeko eta muntatzeko jarraibideen eskuliburua aurkeztu beharko du.
 - Antzeko multzo baten kopia aurkeztu beharko du, berak aurkezten duen mantentze-lanetako eskema elektrikoekin eta dokumentazioarekin.



AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) Kontratuaren neurketak eta aurrekontua.

Osagaiak, garraioko, enbalajeko, deskargako eta baldintza tekniko berezien pleguaren <<**5 NEURKETAK ETA KONTRATUAREN AURREKONTUA**>> atalean adierazitako gainerako gastuak jaso beharko ditu.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itxaso Maseda Itziar Eukene Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak hauek dira:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1. SORTA

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 80 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 80 puntu lor daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntuen guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

$$(Ob / OI) \times z$$

Non:

Ob = eskaintza ekonomiko txikiena

OI = baloratzeke dagoen lizitatzaillearen eskaera

z = honako irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK 20 PUNTU

- Memoria teknikoa..... 20 puntu
 - Eskainitako pinturaren ezaugarriak.
 - Eskainitako bermearen ezaugarriak.
 - Ekipoaren fabrikatzailearen ezaugarri teknikoak, garraiatzeko baldintzak eta entseguak egiteko fabrikara bisita egiteko aukera.
 - K isuriaren ezaugarriak.
 - Eskainitako transformadoreen entrega-epeak zehaztea.
 - Transformadorearen altxatze-puntuen eta tiro eta bultzada horizontaleko puntuen ezaugarriak eta horien identifikazioa eta kokapena.
 - Transformadoreak biltzeko lekuaren ezaugarriak.

2. SORTA

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 80 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez ere 80 puntu lor daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntuen guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

$$(Ob / OI) \times z$$

Non:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Ob = eskaintza ekonomiko txikiena
OI = baloratzeke dagoen lizitatzaillearen eskaera
z = honako irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPE DAUDEN IRIZPIDEAK 20 PUNTU

- Memoria teknikoa..... 20 puntu
 - Katigamendu mekanikoen ezaugarriak, bereziki, neurri-gelaxkarena.
 - Tentsioa duen posizio baten lurrerako konexioaren aurkako adierazpen akustikoen ezaugarriak.
 - Tentsio-presentziaren argi-seinaleen ezaugarriak.
 - Autobalbulen antolaketa.
 - Erabiltzeko eta muntatzeko jarraibideen eskuliburua ematea.
 - Eskema elektrikoaren eta ekipoen mantentze-lanen dokumentazioa ematea.

3. SORTA

Kontratua prozedura ireki bidez adjudikatuko zaio preziorik baxuena duen eskaintza aurkeztzen duen lizitatzaileri. Izan ere, egin beharreko horniduraren ezaugarriak direla-eta, adjudikatzeko irizpide erabakitzaile bakarra da.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresetako plantilletan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketan dauden langileen ehuneko handiagoa. Berdinketak egonez gero, plantillako desgaitasuna duten langile finkoen kopurua edo gizarte-bazterketan daudenena lehenetsiko da.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresa bakoitzaren plantillako emakume langileen ehuneko handiena.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Anormalki baxuak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat anormalki baxua izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra dagoenean, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak baino % 25 unitate gutxiago dituenean.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean % 20 unitate baino gutxiago dituen.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 unitate baino gehiagotan handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da % 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoarekiko % 10 unitatetan baino gehiagotan txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 unitatetan baino gehiagotan gaitzen duten eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Hornidura atzeratzeagatik zehapenak:

- Adjudikatzailak 250 kVA 30/0,42 kV-ko edo 315 kVA 13,2/0,42 1<V-ko transformadoreetarako azken eguna hobetzen duen epea ematen badu, atzerapen-egun bakoitzarengatik eguneko 50 euroko zehapena aplikatu da, gehienez ere sortaren kontratuaren % 5era arte.
- B sortan aurretiaz adostutako entrega-orduak eta -egunak betetzen ez badira, 4.000 euroko zehapena ezarriko da.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Ziurtagiria, egiaztatzen duena arrisku profesionalengatik erantzukizun-asegurua baduela.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

- Deitua den bilera guztietara joatea, gutxienez, telematikoki.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxikiko dio kontratuari; bera izango da kontratuaren zuzendaritzaren aurreko solaskidea eta arduradun nagusia.